

## Marikita Tambourin Baigorriarraren azterketak Agotetaz



Lucien Etxezaharreta eta Marikita Tambourin

Urte luzetan (35 urte) eramanikako lan bat dauku agertzen gaur Marikita Tambourin baigorriarrak: **“Agoten in memoriam”** liburua (Maiatz). 295 orrialdetako obra gotorra. “Euskal Herrian baztertua izan den jendarte baten historia mingarria”, Lucien Etxezaharreta argitaratzailearen hitzetan. Agoten historia hori berreskuratu nahi izan du autoreak eta bide beretik haien memoria ahantzia berpiztu. Hortarako, bere etxeko paperetatik abiatu du ikerlana, Baigorri Ameztokoetatik: “Ameztokia, nire sortetxea, agoten memoria gordearen lekuko isila”. Georges Laplace unibertsitateko irakasleak zuen lehenik Marikita agoten bidean eman, Tambourin deitura bera agotena zitekelakoan. Hari luzea atera du geroztik Baigorriarrak, hainbat artxibo ikertuz eta plazaratuak izan diren ikerlan ugariak, zenbaitzuk arrunt fantesiazkoak, irakurtuz. “Bizi guziko ikerketa baten emaitza da liburu hau” dio ikerleak. Baigorri aldeko agoteri da gehien bat interesatu, baina “agotak kopuru handian baziren Pirinioetako mendilerro guzian” dio Marikitak. Denetan baztertuak izan direnak, Elizaz gehien bat, eskubideak ukaturik, baina jakin dutenak beren burua elkar-tasunean defendatzen. Gaur ez da gehiago agotarik aipatzen, ez du horrek erran nahi desagertuak direla, haien ondokoak hor dira beti, baina gizartean osoki integratuak, lehenagoko bazterketa hura gainditurik. Hauxe ere dauku erraten ikerleak: “Agotak ez dira Buhamiak, maizegi nahasten dira biak, eta gaur buhamiek dute jasaiten lehenago agotek jasan zuten bereizketa”. Dena den, liburu oso interesgarria dauku hor agertzen Marikita Tambourinek, eranskin frangorekin, hala nola artxiboetako dokumentu asko eta ere denboran eginiko ikerketa antropologiko zenbait. Eta liburu hau, jendeak hobeki ezagut dezan, mamitsuki aurkeztuko du urriaren 19an, asteazkenez (18:30), Baionako Euskal Museoa.